

UPV/EHU_n SOLDATA DUINAK, ORAIN GURE IKERTZAILE ETA IRAKASLEAK ZAINDU



OSAGARRIEKIN ADARRIK EZ JO!



ELA-ARABA

Elurreta Ikasgelategia
01006 GASTEIZ
945013391-98
ela-ar@ehu.eus

ELA-BIZKAIA

Liburutegia
48949 LEIOA
946012442-43
ela-bi@ehu.eus

ELA-GIPUZKOA

Barriola Eraikina
20009 DONOSTIA
943018432-5919
ela-gi@ehu.eus

 ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

UPV/EHU_n SOLDATA DUINAK, ORAIN! GURE IKERTZAILE ETA IRAKASLEAK ZAINDU

OSAGARRIEKIN ADARRIK EZ JO!



SOLDATA EGITURA PREKARIOA ETA DISKRIMINATZAILEA

Gure soldata sistema prekarioa da eta ez du laguntzen gure bizitza-proiektua bideragarria izan dadin. Gaur egungo sistema estamental eta baztertzaile honekin amaitzeko garaia da!

• OINARRIZKO SOLDATAK EZ DIRA DUINAK!

- Beste administrazio batzuetako gure pareko mailako langileen soldatak % 73 altuagoak dira.
- Gure oinarrizko soldaten igoerak Madriletik inposatzen dira, hori erabakitzeko eskuduntza hemengoa izan arren. Gure soldata egitura hemen erabaki!
- KPlaren araberako igoerak bermatu, azken urteetan % 20ko eros ahalmenaren galera izan dugu!!

- Osagarrien sistema ez da soldata duina lortzeko tresna eraginkorra!!
- 2006tik KPIa % 43,5 hazi den bitartean, osagarrien zenbatekoak ez dira eguneratu. Ia erdia galdu dugu.
- Genero arrakalan sakontzen du; osagarrien soldata arrakala % 23,4koa da.
- IRI gehienek jasotzen dituzten osagarri tarteak zenbateko baxuenak dituztenak dira; urte eta asko pasa behar dira eta tarte asko eskuratu soldata duin bat jaso arte.
- Osagarri bat lortzeko baldintzak geroz eta korapilatsuagoak dira eta kobratu arte bi urte pasatzen dira.

 ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

SOLDATAK DUINDU, UPV/EHU-KO LANGILEAK ZAINDU!

FINANTZIAZIOA: ERROKO ARAZOA

● AZKEN HAMAR URTEETAKO INBERTSIO PUBLIKOAREN BEHERAKADA PAIRATZEN ARI GARA.

- Europako azkenak gara. Espainiar estatuarekin alderatuz, inbertsio publiko erdia jasotzen dugu (BPGaren % 0,4a EAEn; % 0,8 Espainiar Estatuan; Europar Estatuetan batz bestea % 1,1).
- Inbertsio pribatuak geroz eta pisu handiagoa du; ezagutza kapitalaren esku uzten ari gara.
- Aurrekontuen hazkundeaz hitz egiten digute baina, BPGarekiko alderatuta unibertsitate publikoaren inbertsioa pisua galtzen doa.
 - BPGaren igoera aurrekontuen igoera baino askoz altuagoa da.
 - Langileen lan-baldintzetara bideratzen diren partidek ez dute igoera esanguratsurik izaten.

● ZER PROPOSATZEN DUGU?

- Osagarrien sistema sakonki eraldatu beharra dago!
- Oinarrizko soldata duinak negoziatu!
 - Oraingo osagarrien sistemarekin urteak pasa behar dira soldata duin bat eskuratzeko; karrera profesionalaren hasieratik baldintza duinak bermatu behar dira.
 - Hasierako osagarriak, zenbateko handienekoak izan behar dute, denok probestu ditzagun.
 - Helburua: Soldatak beste administrazio batzuetako kidego berdinekin parekatzea
- Sistema eraldatu bitartean, KPIa berreskuratu eta bermatu!
 - Oinarrizko soldataren % 20 galdu dugu!

- Osagarrien % 43,5 galdu dugu!
- Osagarrien kobrantza lehen egunetik bermatu!
- Eskuratzeko baldintzak berraztertu!

- Ezinbestean finantziazioafinantzazioa igo behar da!
 - BPGaren % 1era iristeko pausoak eman!
 - Osagarrien ordainketarako esleitzen den diru partida handitu eta denon onurarako izango den oinarrizko soldata duintzeko erabili!

● SOLDATAZ GAIN, PREKARIZAZIOA NONAHI!!

IRlen soldata sistema tamalgarri honi, beste prekarizazio elementu batzuk gehitu behar zaizkio:

- Behin-behinekotasuna handia da; batez beste 42 urte bete arte ez dago unibertsitatean egonkortzerik.
- Ordezkoen lanaldi partzialen egoera deitoragarriari ez diote irtenbiderik eman.
- Lan-zama gora doa etengabe... Burokratizazioak itotzen gaitu.
- Lan-osasuna arriskuan dago;
 - Arrisku psikosozialak gora doaz; lan ezegonkorra, baliabide eta antolakuntza falta, sistema lehiako eta atomizatua, ekoizpen zientifikoa "produzitzeko" behar frenetikoa... IRlen neke-maila oso handia da eta lehenengo urteetan are handiagoa.
- Erretiro baldintzak eskatu dizkigute eta lan-zama gutxiago ken dezakegu lan-bizitzako azken urteetan.

OSAGARRIEKIN ADARRIK EZ JO!

